

DEPARTAMENDUKO ETA ESKUALDEKO HAUTESKUNDEAK

Pauetik ere Ipar Euskal Herriaren alde eragin nahian dabil EH Bai

Berriz ere hauteskundeak dituzte Lapurdiko, Nafarroa Behereko eta Zuberoako hautesleek ekainaren 20an eta 27an. Departamenduko eta eskualdeko kontseilariak izendatuko dituzte. Abertzaleei dagokienez, EH Bai koalizioa bakarrik departamendurako aurkezten da eta EAJk erabaki du lehian ez parte hartzea. Pauera begira, kantonamenduka bi ordezkari izendatzen dira eta Ipar Euskal Herriko hamabi eremuetan aurkezten da EH Bai. 2009-2015eko salbuespenaz aparte, betidanik da eskuinean kokaturik Pirinio Atlantikoetako departamendua eta aldi honetan ere berdina aurreikusi dezakegu.

JENOFA BERHOKOIRIGOIN

Karrrikako giroari fidatuz gero ez genuke asmatuko hemendik egun batzuetara berriz ere hauteskundeak ukanen ditugula Ipar Euskal Herrian. Alta, ekainaren 20an eta 27an iraganen dira bat ez, bi hauteskunde: Pirinio Atlantikoetako departamendukoak baita Akitania Berria eskualdekoak ere.

Departamendu mailako kontseiluak sozial arloan du batez ere betekizun handia: haurtzaroaren, zahartzaroaren, ahalmen urritasunaren eta laguntza sozialaren ardura du instituzio honek. Bizi dugun COVID-19 garaian eta honek eragindako krisi ekonomiko eta sozialaren testuinguruan, bertan bozkatuko diren politikak ukanen dute eragin handia herritarren biharko egunerokoan. Eskualdeari dagokionez berriz, sektore ezberdinetan dira honen politikak sendi eta nahiz eta batzarrak Ipar Euskal Herriko urrun egin, eragin handia dute gure egunerokoan.

Hori horrela, nahiz eta kontseilarien batzarrak Pauen zein Bordelen egin, ezkerreko abertzaleak instituzio hauei begira daude, indar guztiak jartzen dituztela Departamenduko Kontseiluan hautetsiak lortzeko. Hain zuzen, aldi honetan ez dira 2010ean bezala eskualderako aurkezten, eta ez dute ere 2015ean bezala bozka manurik bideratzen. Arrazoi nagusia: terrenoko presentzia, hurbiltasuna eta haien aldarrien

irismen gaitasuna ez dutela bermaturik eremu zabalegia den eskualdean –azkenean Akitania Berriko 84.000 km²etatik 3.000 km² dira soilik Ipar Euskal Herri–.

Departamenduko bozketak “lekuko hauteskundeak” direla dio EH Bai koalizioko zuzendaritzan den Nikolas Blainek. Departamendua kantonamenduka zatitua da eta kantonamendu bakoitzak lekuko ordezkariarentzat bozkatzen du –Ipar Euskal Herriaren hamabi kantonamendu dira eta Biarnoan berriz hamaibost, kantonamenduka bi kontseilari direlarik izendaturik–. Hamabi eremuetan aurkezten da EH Bai eta ohartarazten duenez, “kantonamendu guztietan presente den hautagaitza bakarra da”. Koalizioko kideek iazko azaroan buruturiko biltzar nagusian erabaki zuten departamenduko bozetara aurkeztea.

EAJ haatik ez da presente izanen bozketak hauean ez eta ere eskualde mailakoetan –Biarritzeko kantonamenduan haatik Christophe Lamboley-Depoire alderdi kidea presentatzen zaie Générations Biarritz hautagai zentristan–.

Hauteskunderen hauteskunde argi gelditzen ari da ezkerreko abertzaleek geroz eta pisu gehiago dutela instituzioetan –izan udaletan, Euskal Hirigune Elkargoan zein departamenduan–. Duela 20 urte lortu zuten lehen kontseilaria Pauen: Jean-Michel Galant azkaratearra Abertzaleen Batasunaren izenean nagusi

situ zen Baigorriko kantonamenduan. Hortik zazpi urtera Alain Iriartek zuen irabazi Hiriburukoan, abertzale independente gisa aurkeztuz eta 2015ean garaipena errepikatuz, aldi horretan EH Bairen izenean (ondotik, 2017an demisionatu zuen, elkargoan presidenteordearen aulkia hartu zuenean, kargu metaketa saihesteko gisan).

ESKUMEN BATZUK EUSKAL HERRIRATZEKO ESKAERAREKIN

Aldi honetan ere lortu dezakete ordezkari bat. Irabaziz gero, departamendu mailako politikan inplikaturiko dira, baina horrez gain Ipar Euskal Herriaren alde ere ariko dira, Euskal Hirigune Elkargoarentzako botere gehiago eskuratzeko asmoz. “Elkargoari eta departamenduari begiratzen bazaie, batzuetan eskumen berak dituzte biek eta errepikatze horrek ez du zentzurik. Pauetik ariko gara eskumen hauek eta hauei bideraturiko aurrekontuak elkargora bideratzearen alde lanean”, Blainek dioenez. Turismoa, mugaz gaindiko harremanak, hizkuntza politika... bat baino gehiago dira Pauetik zein Baionatik jorratzen diren lan esparruak. Hala eta guztiz ere, kontziente dira “elkargoa ez dela oraindik departamendua ordezkatzeko gai”, baina ondokoa zehazten du EH Baiko zuzendaritzako kideak: “Departamendu mailan

Bere hautagaiak aurkezteko EH Bai ezkerreko koalizio abertzaleak egindako prentsaurrekoa. Apirilean egin zuten aurkezpena Itsasutik.



EH BAI

ala Euskal Hirigune Elkargoan? Nondik gara eraginkorrago? Arloz arlo horri begiratuko diogu... gure lurraldetik aritzeak zentzu gehiago baldin badu, orduan hitzarmenak nahi genituzke, eskumena eta aurrekontua elkargoen esku uzteko gisan”.

Baina horretarako hautetsiak behar dituzte Pauen. Lortzeko heinean direa? Hamabi kantonamenduei begira jarri eta badira, hala ere, garaipena biltzeko gisan diren batzuk. Hasteko, Hendaia Hego Itsasbazterra izeneko kantonamendua dugu hurbiletik segitzeko artean. Aspaldidanik dugu ezkerria nagusi, baina aldi honetan Kotte Ecenarro kontseilari hendaiarra ez da aurkeztuko. Soilik hiru udal biltzen ditu kantonamendu honek –Hendaia, Biriatu eta Urruña– eta oroit gara Urruñan herriko etxea irabazi zutela abertzaleek, Biriatur ere abertzalez osaturiko hautagaitza zela nagusitu eta Hendaian Ecenarro eta abertzaleen artean elkarlanean dabilzala.

Bestalde, 2015ean emaitza onak lortu zituzten Uztaritze-Errubin –%44,4 bigarren itzulian– eta aurten ere espero dituzte emaitza onak, ikusiz eremu horretako herriko bozetan gora egin zuela boto abertzaleak.

Zuberoako eta Nafarroa Behereko zati handi bat biltzen dituen Euskal Mendi deiturikoan eta Bidaxune-Oztibarre-Amikuzen zer gertatuko da? Bi hauetako kontseilariak aspaldian dira boterean –eskuineko Pepela Mirande 1994tik eta departamendu presidente ere den Jean-Jacques Lasserre zentro-eskuindarra 1982az geroztik–. Hautesleen artean behin-betikoz kargutik kentzeko nahikaria gailentzea espero dute abertzaleek. Ekainaren 20an ezkerreko lehen indar gisa nahi lukete kokatu, bigarren itzulian aspaldiko kontseilariari lehiazteko gisan. Bata zein bestean, bigarren itzulian izan ziren jada 2015ean.

Inskribituen %12,5 lortu behar izaten da bigarren itzulira pasatzeko. Abszentsio handia aurreikusten da –2015ean %47,20koa izan zen departamendu mailan eta aldi honetan oraindik handiagoa izan daiteke–. “Abertzaleok oinarri militantea ukanki gure botoa segurtaturik dugula? Ez naiz segur... beharbada gutxiago hunkiak gara, baina ez gara guztiz babestuak”, Blainek dioenez.

2015ean bost kantonamendutan ziren bigarren itzulira pasa eta emaitza onak egin bazituzten ere, bakarrean zuten eskuratu garaipena, Iriartek bigarren aldikoz irabaziz.

Historikoki Pirinio Atlantikoetako departamendua ia betidanik kokatu da eskuinean: soilik 2009-2015eko agintaldia gidatu zuen ezkerrek. Aurten ere indartsu aurreikusten da eskuina,

elkarrekin aurkezten direlako eskuineko eta zentroko alderdiak –oraingoz RN eskuin muturra ez da batasunaren barne, eta zehaztekoa da Ipar Euskal Herriko hamai-kantonamenduetan dugula eskuin muturra hautagaien artean–. Pairean aldiz, ezkerria berriz ere zatiturik dugu eta pentsatu daiteke postura honek eskuinari bidea libre utziko diola.

Eskualdean, haatik, ezkerria da boterean eta berriz ere aurkezten da 1998az geroztik presidentetza duen Alain Rousset sozialista. Zundaketek garaile kokatzen dute berriz ere, puntu bateko aldearekin duelarik hurbil-hurbil RN eskuin muturra. ●

“
Abertzaleon oinarri militanteak botoa segurtatzen digula? Beharbada abstentzioaz gutxiago hunkiak gara, baina ez gara guztiz babestuak”

Nikolas Blain